



Xabierto: *Xabierto* liburua irakurri egiten zuten Jeronimo Sarriegirekin. (JUA, 2003-05-17)/ JBA ikasle zela, Sebastiana maistrarekin Xabierto ere irakurtzen zuten eskolan: *Asten bein-o leittu in bear izaten gendun*, eskola garaian. (JBA, 2005-08-18)/ (*)

Xágu, xagúe: *iz. Zool.* Sagua, ugaztun mota./ *Xague.* Sagua. (JBA, 2000-09-16)/ *Xague, arratoia.* Sagua, arratoia. (JUA, 2002-08-31)

• *Emog.* **Txakurra:** Txakurrek saguak harropatzerako orduan, era berezi batetan jotzen dute, izan ere bizkaezurra puskatu egiten diete. (JBA, 2000-09-16)

• *Emog.* **Saguen arrastoa:** Zikirio sailean, tarte batean labore buru asko pilatuak zeuden. Hau saguek egindakoa da. Gari sailean ere hala egiten zuten. (JBA, 2008-07-26)

• *Emog.* **Katua:** Gaur bertan gertatutako pasartea aipatuko du: Katu beltzak sagua harropatu du, eta *agon xágu ori* zuela, *miauka* etorri da sukaldera. Bertan katakumea zen, eta bere umea ez izanda ere, sagua berari eman dio. (JBA, 2008-10-08)

Xagúkuma, xagúkumea: *iz. Zool.* Sagukumea./ *Xagukuma.* Sagukume. (JBA, 2000-09-16)

Xagúxar, xagúxarra: *iz. Zool.* Saguzarra, ugaztun mota./ *Xaguxarra.* Saguzarra. (JBA, 2004-10-19)

Xálka, xalkéa: (ik. **Zalka**)

Xamár, xamárra: *I. adb.* Samarra./ *On xamarrek.* On samarrak. (JBA, 1998-12-23)/ *Bea ondo xamar eongo zan.* Bera ondo samar egongo zen. (JBA, 2000-12-24)/ *Ixil xamarrik eon da.* Isil samarrak egon da. (JBA, 2003-11-25)/ **Z.** (ik. **Samar**)

Xamártu: *ad.* Samartu./ *Bete xamartuta.* Bete samartuta. (Ondo janda) (JBA, 2005-08-14)/ *Ein xamartuta.* Egin samartuta. (JBA, 2006-11-04)

Xamúr, xamúrre: (ik. **Samur**)

Xamúrtasun, xamúrtasune: *iz.* Samurtasuna, erraztasuna./ *Xamurtasune.* Samurtasuna. (JUA, 2002-01-12)



› **XAGUE.** Zikirio buruak, ebakita eta bilduta. Hau saguen lana omen da. Gari artean ere antzekoak egiten zizuten. (AA, 2008-07-26)

Xamúrto: *iz.* Samurtu, bigundu./ *Xamur-tzen.* Samurtzen. (JBA, 2004-05-29)

Xápatx, xapátxa: *izond.* Sapatsa, pertsonekin erabiltzen den hitza; argala, zaharra... adierazi nahi du./ *Xapatxa.* Sapatsa. (Mariaje UB-k entzuna aurretik) (JUA eta JBA, 1999-09-18)

Xápi! *interj. Zool.* Xapi. Katua bidaltzeko esaten den formula./ *Katue! Xápi!* Katua! Xapi! (JBA, 1999-11-06)

Xar, xárra: (ik. **Zaar**)

Xátar, xatárra: *I. izond.* Zatarra, pertsonaren izaeraren gainean./ *Xatarra izatea pertsona.* Zatarra izatea pertsona. (Gaizto antzekoa) (JBA, 2000-10-14)/ *izond.* Zatarra, eskasa, balio gutxikoa./ *Xatar batzuk.* Zatar batzuk. (Eskuara eskas batzuen gainean) (JBA, 2005-06-25)/ *Berdel xatar batzuk.* Berdel zatar batzuk. (JBA, 2006-08-12)/ *Xatarrak.* Zatarrak. (JUA, 1998-10-

31)/ *Xatarrak ez batu, onanak eta kito.* Zatarrak ez bildu, onenak eta kito. (Sagarren gainean) (JBA, 1998-11-07)/ (sinonimoak **Ttatar; Txatar**)

Xatárki: (ik. **Zatarki**)

Xatártu: *ad.* Zartatu, eskastu, balioa galdu./ *Xatartu igual ingo a ori.* Zartatu igual egingo da hori. (Edari bat pasa egingo dela) (JBA, 2005-08-12)

Xaunka: (ik. **Zaunka**)

Xáxau: *ad.* Xaxatu, zirikatatu./ *Xaxau.* Xaxatu. (JBA, 1999-01-30)

Xe, xéa: *izond.* Xehea./ *Xea.* Xehea. (JBA, 1998-05-09)/ *Zea.* Xehea. (Gatzaren gainean) (JBA, 1998-02-11)/ (aldiera **Ze**)

XE IN: *ad.* Xehe egin./ *Xee-xee inda.* Xehe xehe eginda. (Janari baten gainean) (JBA, 1999-11-28)/ *Xe-xe einda epini olaxe.* Xehe-xehe eginda ipini horrelaxe. (JBA,

2003-10-11)/ *Au da xee-xe inda*. Hau da xehe-xehe eginda. (JBA, 2004-05-15) (sinonimoa **Xeetu**)

Xeétu: *ad.* Xehatu./ *Seetu*. Xehatu. (JBA, 1998-07-08)/ *Xeetuta*. Xehatuta. (JBA, 2002-06-08)/ *Seatu*. Xehetu. (JBA, 2004-12-03) (alderak **Seatu**; **Seetu**) (sinonimoa **Xe** sarrera, **xe in** atala)

Xímaur, ximaurre: *iz.* *Nekaz*. Simaurra./ *Xímaurre*. Simaurra. (JBA, 2007-09-22) (sinonimoa **Sitx**)

- *Etnog.* **Simaurra**: Simaurrak osaketa prozesu bat dauka, harik eta erabat osatu arte. Behin simaurra ondo osatzen denean, ahal bada busti gabe gorde behar da, horrela bere ezaugarriak hobe mantentzen dituelako. (Horregatik estaltzen da batzutan plastiko batekin)/ Otea botatzea-eta (kortaloia egiteko), hasieran egin beharreko lanak dira, ez simaurra eratzen denean. Orduan, baratza edota sorocetan zabaltzea falta da. (JBA, 2003-09-20) Gariari ez zitzaion simaurrik botatzen. (JBA, 2007-09-22) (•)

Ximaurtei, ximaurteie: *iz.* Simaurtegia./ *Ximaurteie*. Simaurtegia. (JUA, 2000-03-04)

- *Etnog.* **Olazar baserrikoa**: Olazar baserrian, bada atal bat honela deitua. Berau, Etxokane eta lorategiaren artean da, behe solairuan. Olazaren bizitza ezberdinak zirenean, etxokaneok simaurtegi bezala erabiltzen zuten. (JUA, 2000-03-04)

Ximel, ximéla: **1.** *izond.* Zimela./ *Gaztaiñak ximelegi*. Gaztainak zimelegi. (JBA, 2001-11-17)/ *Aragi zimel batzuk*. Haragi zimel batzuk. (JBA, 1998-12-19)/ *Zimela*. Ximela. (Lastoarekin egindako sokaz) (JBA, 2008-03-01) (aldea **Zimel**)/ **2.** *izond.* Zimela,



› **XAGUE**. Hildako sagua Kortaburu aldean. (AA, 2008-04-30)

argala, gogortua./ *Aitona ximel-ximela*. Aitona zimel-zimela. (Aitona zahar bati buruz) (Jon AU-k entzuna: JUA, 2002-02-14)

Ximéldu: *ad.* Zimeldu./ *Ximeltzen*. Zimeltzen. (Gaztaina batzuen gainean) (JBA, 2002-12-27)

Ximúr, ximúrre: *izond.* Zimurra./ *Zimur xamarra*. Zimur samarra. (Arropa baten gainean) (JBA, 2000-07-15)/ *Zimurragok*. Zimurragoak. (Kiwiaren azalaren gainean) (JBA, 2004-01-01)/ *Zimur ok*. Zimur hauek. Oihalean sortutako zimurren gainean. (JBA, 2006-02-11) (aldea **Zimur**)

Ximúr, ximúrre: *iz.* Zimurra, zimur da-goena./ *Ximur-ximur batzuk*. Zimur-zimur

batzuk. (Emakume batzuk deskribatuz) (MUA, 2002-04-11)/ *Zimurrunak*. Zimurrunak. (Alanbre sareak dituen zimurrak, hau da, zuzenak ez diren tarreak) (JBA, 2001-04-14) (aldea **Zimur**)

Ximúrto: *ad.* Zimurto./ *Ximurtuta*. Zimurtuta. (Patata batzuen gainean) (JBA, 1999-06-19)/ *Ximurtuta*. Zimurtuta. (Tolestatu behar diren izaren gainean) (JBA, 2000-08-29)/ *Zimurtzen*. Zimurtzen. (JBA, 2003-12-26)/ *Zimurto*. Zimurto. (JBA, 2003-12-31) (aldea **Zimurto**)

Xinko, xinkoa: *izond.* Harroa./ *Xinko... xinkoa*. Harro... harroa. (Pertsona baten gainean) (Mariaje UB-k entzuna aurretik) (JBA, 2007-06-02) (sinonimoa **Arro**)

Xinkókeri, xinkókerie: *iz.* Harrokeria./ *Xinkokerik*. Harrokeriak. (Mariaje UB-k entzuna aurretik) (JBA, 2007-06-02) (sinonimoa **Arro**, bigarren adiera)

Xínple, xínplea: *izond.* Simplea, balio gutxikoa./ *Gauza xínple bat*. Gauza simple bat. (JBA, 1999-08-08)

Xinplétu: *ad.* Sinpletu./ *Xinpletu*. Sinpletu. (Pilaren barruko kupre xaflak nola gasatzen eta sinpletzen diren adieraziz) (JBA, 2007-04-11)

Xiór, xiórre: (ik. **Zior**)

Xipristiñ, xipristiñe: (ik. **Zipztin**)

Xipúla, xipúlea: *iz.* Oilaurra./ *Xipula*. Oilaurra. (Españierazko *postilla*) (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2001-09-11) (ik. **Ixipula**)

Xírku, xírkue: *iz.* Itxura./ *Betiko xírkukin*. Betiko itxurarekin. (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2008-05-17) (sinonimoa **Itxura**, lehen adiera)

Xírku in: *ad.* Xírku egin, bat-batean alde egin./ *Xírku in*. Xírku egin. (JBA, 2006-10-14)/ *Beittu ta izkuta...* *Ikusi nai ez bada*. (JBA, 2009-01-21)

Xítál, xítála: *izond.* Zitala./ *Xítala*. Zitala. (JBA, 2001-04-21)/ *Xítala*. Zitala. (Katua-ren gainean esana) (JBA, 2003-10-18)



› **XIMAURRE**. Simaur pila. (AA, 2005-04-30)

XIURTU

Xiurto: *ad.* Uzkurto, lehortu./ *Xixak xiurto itte ttuk.* Zuzak uzkurto egiten dituk. (Mariaje UB-k entzuna aurretik) (JBA, 2008-05-17)/ *Xixak xiurto eitte ittuk.* Zizak uzkurto egiten dituk. (Lehortu direlako) (Mariaje UB-k entzuna: JBA, 2008-03-01) (sinonimoa **Uskurto**)

Xix, xítxe: (ik. **Sitx**, bi adierak)

Xorrótu: *ad.* Zorrotu, txartu./ *Xorrotuta artoak.* Zorrotuta artoak. (Artoak bero handitan edukitzean, hauek izaten duten egoera txarra aipatuz) (Maite UB-ek entzuna aurretik) (JBA, 2006-08-17)

Xúlau: *iz.* Zulatu./ *Xulau.* Zulatu. (JBA, 1999-05-08)

Xur, xúrre: *izond.* Xuhurra./ *Xurre.* Xuhurra. (JBA, 2001-03-24)

Xúti: (ik. **Zutika**)